

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



www.zizurkil.com

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

**NESKA
TXIRRINDULARIEN
7. SARI NAGUSIA
ZIZURKIL-VILLABONA
2011**



Zizurkilgo Euskara biziberritze plana 2009-2012

ekaina 2011 | 90. zenbakia | UDA

TOKIKO AGENDA 21: ASTE BERDEA: Zentzuz elikatu, zentzuz kontsumitu: zentzuz bizi



011-05-27: "XL Town" antzezlan, Pikor Teatroren eskutik, Villabonako Gurea Antzokian 22:30ean.

2011-06-01: Eider Elizegi mendizale eta idazlearen hitzaldia, Irurako Ikastolako Areta Nagusian. Literaturako Desnivel Saria 2010eko irabazleak "Mi montaña" liburuan bildutako bizipenak azalduko ditu.

2011-06-02: Bideo-foruma: "Elikadura Subiranotasuna Euskalerrian", Atxulondo Kultur Etxean 19:30ean.

2011-06-03: Bigarren Eskuko Azoka Villabonako Berdura Plazan 17:30etik 21:00etara. Interesatuta bazaude deitu aurretik 689749439 telefonora. Lur-Lan Baserritarren Elkartearen eskutik produktuen dastaketa izango da

2011-06-04: "Poliposeídas", Tolosako Zerkausian 22:00etan.

2011-06-05: Zizurkildik barrena 2011ko mendi ibilaldi herrikoia. Irteera 9:00etan Zizurkilgo Pello Mari Otaño Plazatik eta Pesus Plazatik. Bi taldeak San Migel ermitan elkartuko dira.

Ibilbide luzea: Pesus plaza- Ihartza auzoa – Galardi – Behibategi – San Migel ermita (bertan Pello Mari Otaño plazatik irten direnekin elkartuko gara) – Saizar – Salobieta – Lepasoroko putzua – Astabere – Egietia – Abeletxe – Andrezketa – Iruazupikoa – Errotamendi – Txuloko errota – Elizmendi – Asteasu herrigunea – bidegorritik Ibargun baserrira (bertan bazkalduko dugu, bazkaria bakoitzak eraman behar du, edaria eta kafea Udalak jarriko du) – buelta, bidegorritik Pesus plazara.

Ibilbide motza: Bidegorritik Ibargun baserrira bazkaltzera, bertan BasHerri taldeen funtzionamendua ezagutuko dugu.

2011-06-08: Tolosaldeko Eskolako Agenda 21 III Topaketak , Tolosako Musika Eskolan 9:30etik 12:30era.



KULTURA:

2011-06-14: "GIPUZKOAREN JATORRIA, Historia, mitoa eta elezaharraren artean" bideoaren aurkezpena 19:30ean Atxulondo Kultur Etxean, NABARRALDERen eskutik.

2011-06-23: SAN JUAN BEZPERAKO SUA: 20:00etan Pesus Plazan herritarrak bilduko dira, Elbarrenako su ezberdinak bisitatuko dituztelarik kalejiran. 22:30ak aldera Pesus Plazako sua piztuko dute, San Juan Dantza dantzatu eta zizka-mizka batekin amaiera emango zaio festari. 22:00etan Udaletxe aurrealdean sua eta txokolatada, Sanmillan eskolako guraso elkartearen antolakuntzapean.

KZ GUNEA: Tutoritza egunak: ekainaren 2, 16 eta 30ean 9:00etatik 13:00etara.

KIROLA:

2011-06-19: NESKA TXIRRINDULARIEN 7. SARI NAGUSIA ZIZURKIL-VILLABONA 2011 (Euskadiko Txapelketa), 10:00etan.



EUSKARA:

OPORRETAN EUSKARAZ:

Ekainaren 27tik uztailaren 22ra. 1999-2007 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendutako udaleku irekiak. Gurasoen bilera: ekainaren 17an 18:00etan Atxulondo Kultur Etxean.

DIRULAGUNTZAK:

Udako Euskal Unibertsitateak antolatzen dituen Ikastaroetan parte hartzen duten zizurkildarrei Udalak dirulaguntzak emango dizkie matrikulak ordaintzeko. Informazio gehiago: Aurrera Plazako Udal Bulegoetan.

BESTELAKOAK:

2011-06-26: GIPUZKOAKO AZKARTASUN SEGA TXAPELKETA 18:00etan.

LURRALDEBUSEKO TXARTELAK

Aurrerako Udal Bulegoetan Lurraldebuseko txartelak eskatu edo lehen daukazuna karga dezakezu. 943-693066 telefonoan argibide gehiago.

KOADRILEN EGUNA: Uztailaren 2an izango da.

